

65 *cross internacional* **ZORNOTZA**

2019.urt.06

ARAUDIA

1. Lasterketa **2019ko urtarrilaren 6an** (igandea) izango da Amorebieta-Etxanoko Jauregi-barriako zelaietan eta bertan Cross-Country delakoaren bederatzi lasterketa egingo dira ondoko maila banaketari eta ordutegiari jarraituz:

ORDUA	MAILA	JAIOTZE URTEA	DISTANTZIA
9:40 h.	Infantil - kadete (Sub15-Sub16) neska	2006 - 2005 - 2004	1.550 m.
9:50 h.	Infantil - kadete (Sub15-Sub16) mutila	2006 - 2005 - 2004	3.120 m.
10:10 h.	Alebin (Sub13) neska	2008 - 2007	1.120 m.
10:20 h.	Alebin (Sub13) mutila	2008 - 2007	1.550 m.
10:30 h.	Emakumezko jubenil - juniorra (Sub18-Sub20)	2003 - 2002 - 2001 - 2000	3.550 m.
10:55 h.	Gizonezko jubenila (Sub18)	2003 - 2002	4.700 m.
10:55 h.	Gizonezko juniorra (Sub20)	2001 - 2000	6.700 m.
11:30 h.	Gizonezko eta emakumezko paralinpikoa		1.970 m.
12:30 h.	Emakumezko absolutoa	1999 eta aurrekoak	8.700 m.
13:15 h.	Gizonezko absolutoa	1999 eta aurrekoak	10.700 m.

2. Nahi duten atleta guztiek hartu dezakete parte (maila paralinpikoan izan ezik) baldin eta lehen aipatutako mailetan badaude eta Federazioek emandako lizentzia badaukate.

3. Izenemateak kadete, jubenil, junior eta maila absolutuan Espainako Atletismo Federazioaren extranetean egingo dira eta alebin eta infantil mailetan **cdzornotza.eus** web orrialdean urtarrilaren 2ko 24:00ak baino lehen (**lehiaketaren egunean ez dira inskripziorik onartuko**). Izenemate guztietan datu hauek adierazi beharko dira: IZENA, BI ABIZEN, JAIOTZE URTEA, MAILA, CLUB edo IKASTETXEA, FEDERAZIOA eta BAIMEN ZENBAKIA.

Maila paralinpikoan Kirol Egokituaren Federazioaren ordezkariak egingo dute inskripzioa.

4. Dorsalak lehiaketaren egunean emango dira zirkuitoko sarreran.

65 *cross internacional* **ZORNOTZA**

2019.urt.06

ARAUDIA

5. Dei ganbaratik pasatzea ezinbestekoa izango da atleta guztientzat ezagutzera emango diren ordutegietan.
6. Buelta galtzen duten atletek **DERRIGORREZ** utzi beharko dute lasterketa.
7. Erreklamazioak lehenbailehen Epaile Nagusiari aurkeztu behar zaizkio, emaitzak publiko egin ondoren 30 (hogeita hamar) minutu pasa baino lehen.
8. C.D. ZORNOTZAK ez du erantzukizunik hartzen atletek lehiaketan zehar edo lehiaketaren ondorioz jasan dezaketen kalte fisiko edo moralei dagokienez.
9. Arautegi honetan ez aurreikusitakoa Antolatzaile Batzordeak erabakiko du RFEAko eta IAAFeko arautegiei jarraituz.
10. 65. NAZIONARTEKO ZORNOTZAKO CROSS-ean parte hartzeak arautegi honen onarpena suposatzen du.

Amorebieta-Etxanon, 2018ko abendua